

# B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

# Cristóbal Balenciagari buruzko Nazioarteko I. Biltzarra

Ekimenerako aztergai ildoen gida

**Cristóbal Balenciaga Museoa** interesekotzat jotzen dituen arloei buruz orientatzeko, eta beste ikuspegi batzuk bazter uzteko asmorik gabe, hona hemen aztergai potentzialetako batzuk.

## Alderdi biografikoak

- Balenciagaren biografiari egindako ekarpen berriak.
- Gustuak, zaletasunak, balioen mundua.
- Senide eta lagun ingurua.
- Etxe partikularrak: salerosketa, kokapena, arkitektura eta dekorazioa.
- Negozioak eta inbertsio partikularrak.
- Joskintzaren inguruko prestakuntza, oro har, eta lanbidearen ikaskuntza, bereziki.
- Balenciaga bildumazalea.

## Balenciagaren lanaren testuingurua (1917-1968)

- Espainiako eta nazioarteko goi-mailako jantzigintzaren sektorea. Aldaketak. Lehiakideekin zuen harremana.
- Espainiako eta nazioarteko prêt-à-porter sektorea. Aldaketak. Lehiakideekin zuen harremana.
- Balenciaga eta Frantziako goi-mailako jantzigintzaren Sindikatu Ganbera.
- Balenciaga eta Espainiako goi-mailako jantzigintzaren Kooperatiba.
- Mugarri historikoak bere lanaren testuinguruan. Bere negozioan izan zituen ondorioak. Balenciagaren estrategiak testuinguru horietan.

## Balenciaga marka. Lege- eta enpresa-alderdiak

- Lege- eta enpresa-alderdiak: enpresak eratu eta desegitea, bere marken kudeaketa.
- Balenciagak Espainian eta Frantzian dituen marken lege, enpresa- eta zerga-testuinguruak. Legedia eta aldaketak Espainian eta Frantzian, 1917-1968 bitartean.
- Balenciagaren enpresen akzio-dunak, aldaketak eta arrazoiak.
- Balenciagaren etxeetako langile-kopurua, egitura eta bilakaera. Lan-legedia eta aldaketak Espainian eta Frantzian, 1917-1968 bitartean.
- Donostia, Madril, Bartzelona eta Parisko egoitzak: erosketak/ alokairuak, goi-mailako jantzigintzaren negozioaren testuinguruan duten kokapena, arkitektura, espazioen banaketa, dekorazioa.

## Negozioaren dibertsifikazioa

- Balenciaga, beste marka batzuen lizentziataria (1917-1936).
- Lizentziak emateko eta kudeatzeko politika. Balenciagaren lehiakideen lizentzia-politikarekin alderatu. Balenciagaren lizentziataria munduan. Lizentziek markaren negozio globalean duten pisua.
- Aldaketak Balenciagaren lizentzia-politikan.
- Lizentziatarako bildumak. Lizentziarekin saldutako modeloen identifikazioa. Tipologiak.
- Copyright-aren kontrola. Balenciagaren politikak eremu honetan beste jostunekin alderatuta dituen berezitasunak. Auziak.
- Osagarrien salmenta: zehaztapena, lankidetzaz hitzarmenak beste sortzaile edota enpresa fabrikatzaileekin. Osagaien salmentak Balenciagaren negozio globalean duen garrantzia. Salmenta-toki nagusiak.
- Lurrinak: kontratuak lurrin-enpresekin, Balenciagak sortutako esentziak sortzeko; lurrinak saltzeko lizentzia-kontratuen politika. Merkatu nagusiak.

## Marka irudia

- Balenciaga markaren publizitate- eta merkataritza-estrategia. Espainia eta Frantziako etxeen arteko ezberdintasunak. Aldaketak eta bilakaera.
- Pariseko Balenciaga denda. Dekorazioa eta aldaketak, 1948 eta 1968 bitartean. Dendaren publizitate-estrategia.
- Espainia eta Frantziako etxeetako saltzaileak. Lan egiteko moduak. Espainiako eta Parisko beste moda-etxeekiko ezberdintasunak eta antzekotasunak.
- Desfileak. Azterketa eta bilakaera. Nazioarteko desfileetan parte hartzea.

## Balenciagaren hornitzaileak

- Hornitzaileak eta horiekiko enpresa-harremanaren bilakaera.
- Espainia eta Frantziako hornitzaileen arteko bereizketa.
- Balenciagaren hornitzaileen enpresa-testuinguruak eta aldaketak.

## Bezero partikularrak

- Balenciaga etxeko bezero partikularrak: erosketa-ohiturak eta gastuaren aldaketak.
- Bilduma pribatuak. Kasu berezien azterketa.
- Espainiako bezeroak eta nazioartekoak. Bezero-talde bakoitzaren bilakaera, markaren ustiapen-kontuan.
- Bezero partikularrentzako sorkuntza zehatzen historiaren ikerketa.

## Bildumak

- Balenciaga etxeko bildumen sorrera. Metodologia.
- Jantzigintza tailerretako prozesuak.
- Fantasia tailerretako prozesuak.
- Kronologia. Alderdi kuantitatibo eta kualitatiboen bilakaera.
- Erabilitako ehunak. Erabileren bilakaera. Bilduma batzuk eta besteak alderatzea. Beste jostunek bildumetan erabilitako ehunen erabilerekin alderatzea.
- Ehunak eta apaingarri historikoak berrerabiltzea.
- Kolorea: aukeraketa eta gama kromatikoak. Balenciaga, kolore-joeren testuinguruan. Eremu honetan izandako berrikuntzak. Esanahiak. Herentzia historiko eta kulturalak.
- Balenciaga eta apaindurak: bildumetan erabilitako apaingarriak. Bilakaera.
- Balenciagaren bildumetan janzkera historikoko elementuen presentzia eta berrinterpretazioa. Jatorri geografikoen/denborazkoen identifikazioa.
- Balenciagaren bildumetan herriko janzkerako elementuen presentzia eta berrinterpretazioa. Jatorri geografikoen/denborazkoen identifikazioa.
- Balenciaga berritzailea eta bere justifikazioa. Berrikuntzako mugarriak.

## Balenciaga teknika

- Teknikaren analisia eta deskribapena.
- Piezen azterketa: patrioiak, teknika. Beste jostun batzuek sortutako antzeko piezekin alderatzea.
- Balenciagaren teknikaren eta gaitasun berritzailearen arteko harremana. Ezberdintasun estetikoak lortzeko erabilera teknikoen azterketa deskribatzailea. Kasuen azterketa.
- Eraginak Balenciagaren teknikan.
- Balenciagak beste jostun batzuen teknikan duen eragina.

## Balenciaga eta bere sormen testuingurua

- Eragin artistiko eta kulturalak Balenciagarengan.
- Beste jostun batzuen eragin tekniko eta estetikoak.
- Jostunak artista eta intelektualekin izandako harremana. Ekarpinak partekatzea.
- Balenciagak garaiko nazioarteko modan izandako eragina. Kasuen azterketa.
- Balenciaga eta espazioa: arkitekturarekin eta dekorazio-arteekin izandako loturak.

## Balenciaga eta prentsa

- Espainiako zein nazioarteko modako prentsaren testuinguruak (1917-1968). Argitalpenak, goi-mailako jantzigintzari dagozkion politika editorialak eta aldaketak. Balenciagaren komunikazio-politikak testuinguru horietan.
- Balenciagak modako komunikazioko profesionalekin izandako harremana: kazetariak, ilustratzaileak, argazkilariak eta modeloak.
- Balenciaga espezializatutako eta espezializatu gabeko espainiar prentsan. Agerpenak eta bilakaera.
- Balenciaga espezializatutako eta espezializatu gabeko nazioarteko prentsan. Agerpenak eta bilakaera.
- Balenciagaren markek prentsan duten publizitate-politika.
- Balenciagaren bildumen kazetaritza-kronikak. Argitaratutako balorazioen garapena. Hedabideetan izandako eragina.

## Balenciaga eta prêt-à-porter

- Balenciagak eremu honetan izandako parte-hartzea. Sortutako piezen azterketa.

## Balenciaga ondorengo Balenciaga: ondarea

- Balenciagaren erakusketak: komisariotzak, hitzaldiak, museografia.
- Balenciaga museo-bildumetan: atribuzioen azterketa, piezen datazioa eta bildumetan kokatzea, horien azterketa teknikoa (patroiak, mantentze-egoera, errestaurazio-azterketak).
- Balenciaga bilduma pribatuetan: atribuzioen azterketa, piezen datazioa eta bildumetan kokatzea, horien azterketa teknikoa (patroiak, mantentze-egoera, errestaurazio-azterketak).
- Balenciagaren piezak berreskuratzea. Egindako errestaurazio-lanen kasuak.
- Balenciaga enkanteen merkatuan. Bere sorkuntzen balioaren bilakaera. Balenciaga Paris etiketa duten piezen eta Espainian erabilitako beste marka batzuen enkanteko konparazio-azterketa. Kasuen azterketa. Balenciagaren piezen balioaren eta beste moda-etxe batzuen pieza baliokideen arteko enkanteen balioaren konparazio-azterketa.
- Balenciagaren piezak vintage merkatuan. Merkatuko balorazioa. Kasuen azterketa.
- Balenciagak agur esan ostean bildumetan izandako eragina. Gaur egungo modan duen eragina. Kasu zehatzen azterketa.
- Cristóbal Balenciaga eta Balenciaga marka bera hil ondoren. Lege- eta merkataritza-alderdiak. Markaren balio historikoa ustiatzeko estrategiak.
- Balenciagaren artxiboaren osaera eta xehakatzea.
- Balenciaga eta bere jarraitzaileak. Jarraitzaile-kolaboratzaileen ondorengo ibilbide profesionalak.

## Balenciagari buruzko testigantzak

- Senideena.
- Langileena.
- Lagunena.
- Lehiakideena.
- Bezeroena.

# B

## CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Aldamar Parkea 6  
20808 Getaria - Gipuzkoa - España  
T 943 008 840  
info@crislobalbalenciagamuseoa.com  
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz – 71km  
Bilbao – 81km  
Donostia / San Sebastián – 25km  
Iruña-Pamplona – 97km  
Vitoria-Gasteiz – 83km

GPS  
43° 18' 6.92" N  
2° 12' 18.77" W

